

FUERA DE LUGAR

cuerpos (in)tangibles
en las culturas minorizadas
de la Península Ibérica

Literatura, cine y arte

LEKUZ KANPO: GORPUTZ UKIGARRI(EZ)IN/ AK IBERIAR PENINTSULAKO KULTURA GUTXITUETAN. LITERATURA, ZINEMA ETA ARTEA
FORA DE LLOC: COSSOS (IN)TANGIBLES EN LES CULTURES MINORITZADES DE LA PENÍNSULA IBÉRICA. LITERATURA, CINEMA I ART
FÒRA DE LUGAR: CORPOS (IN)TANGIBLES NAS CULTURAS MINORIZADAS DA PENÍNSULA IBÉRICA. LITERATURA, CINE E ARTE
FORA DE LUGAR: CORPOS (IN)TANGÍVEIS NAS CULTURAS MINORITÁRIAS DA PENÍNSULA IBÉRICA. LITERATURA, CINEMA E ARTE



FUERA DE LUGAR

cuerpos (in)tangibles
en las culturas minorizadas
de la Península Ibérica

Literatura, cine y arte

FUERA DE LUGAR

cuerpos (in)tangibles
en las culturas minorizadas
de la Península Ibérica

Literatura, cine y arte

Editores

Magdalena Anna Gajewska

Aitor Arruza Zuazo

Ana Garrido González



LEKUZ KANPO: GORPUTZ UKIGARRI(EZIN)AK IBERIAR PENINTSULAKO KULTURA GUTXITUETAN. LITERATURA, ZINEMA ETA ARTEA
FORA DE LLOC: COSSOS (IN)TANGIBLES EN LES CULTURES MINORITZADES DE LA PENÍNSULA IBÉRICA. LITERATURA, CINEMA I ART
FÓRA DE LUGAR: CORPOS (IN)TANGIBLES NAS CULTURAS MINORIZADAS DA PENÍNSULA IBÉRICA. LITERATURA, CINE E ARTE
FORA DE LUGAR: CORPOS (IN)TANGÍVEIS NAS CULTURAS MINORITÁRIAS DA PENÍNSULA IBÉRICA. LITERATURA, CINEMA E ARTE

Reseñadores

Mikel Ayerbe Sudupe

Amaia Elizalde Estenaga

Redactor jefe

Małgorzata M. Przybyszewska

Redacción y corrección

Irene Tetteh Morcilo

Marzenna Gottesman

Krzysztof Heymer

Diseño de cubierta y portadas

Anna Gogolewska

Ilustración en la cubierta

Esther Arnaiz García

Composición y compaginación

ALINEA

Publicación financiada de los medios de la Universidad de Varsovia

Publikacja dofinansowana przez Uniwersytet Warszawski

Publicación bajo licencia Creative Commons Attribution 3.0 PL (CC BY 3.0 PL)

(texto completo disponible en: <http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/pl/legalcode>)

Aitor Arruza Zuazo ORCID 0000-0003-3139-8042 Uniwersytet Warszawski

Magdalena Anna Gajewska ORCID 0000-0001-7126-9179 Uniwersytet Warszawski

Ana Garrido González ORCID 0000-0002-4978-8498 Uniwersytet Warszawski



(Otra)Iberia

Grupo de investigación

ISBN 978-83-235-5518-6 (impr.)

ISBN 978-83-235-5590-2 (pdf online)

ISBN 978-83-235-5598-8 (e-pub)

ISBN 978-83-235-5575-9 (mobi)

Wydawnictwa Uniwersytetu Warszawskiego

PL 00-838 Warszawa, ul. Prosta 69

e-mail: wuw@uw.edu.pl

Księgarnia internetowa: www.wuw.pl

Edición 1, Varsovia 2022

ÍNDICE

| | |
|--------------------|---|
| INTRODUCCIÓN | 7 |
|--------------------|---|

I PARTE EL LUGAR PARA EL OTRO EN EL MEDIO FÍSICO Y ESPIRITUAL

| | |
|--|----|
| Ewa Grajber EL CONCEPTO DE LA IDENTIDAD EN LA ARQUITECTURA DE ANTONI GAUDÍ | 13 |
| Natalia Szejko O <i>QUE ARDE</i> DE OLIVER LAXE E O UNIVERSO POÉTICO DE UXÍO NOVONEYRA | 38 |
| Anna Działak-Szubińska FERNÃO PERES DE TRAVA – O OUTRO NA FUNDAÇÃO DE PORTUGAL | 45 |

II PARTE CUERPOS MARGINADOS: LUMPEN, PROLETARIO Y EXILIADO

| | |
|--|----|
| Iratxe Retolaza Gutierrez RESIDUOS CORPORALES EN LA NOVELA <i>ULTIMES DÉCHETS</i> (2015) DE ITXARO BORDA: BASUROLOGÍA Y LOS LÍMITES DE LO HUMANO | 61 |
| Susan A. de Oliveira MINORIAS AFROIBÉRICAS NA LITERATURA MIGRANTE DA GUINÉ EQUATORIAL | 77 |
| Àlex Matas Pons A LA RECERCA DE L'HEROI PROLETARI CATALÀ: SOBRE LA INVISIBILITAT DE LES PERIFÈRIES | 88 |

III PARTE CUERPO FEMENINO COMO CUERPO USURPADO

| | |
|--|-----|
| Agnès Toda i Bonet LA VISIÓ DE LA DONA EN <i>QUIM/QUIMA</i> (1971) DE MARIA AURÈLIA CAPMANY | 105 |
|--|-----|

| | |
|--|-----|
| Attilio Castellucci A DICOTOMÍA DA PERSONAXE DE READ EN <i>PIRATA</i> DE MARIA REIMÓNDEZ | 118 |
| Garbiñe Iztueta-Goizueta GORPUTZ GAIXOAK ETA ALTERITATE ESPAZIOAK: EREMU UKIGARRI EDO UKIEZINAK EGUNGO EUSKAL ETA ALEMANIAR LITERATURAN | 134 |
| Garbiñe Iztueta-Goizueta SICK BODIES AND SPACES OF ALTERITY: SPACES OF (IN)TANGIBILITY IN RECENT BASQUE AND EAST GERMAN NARRATIVES | 159 |
| Amaia Serrano Mariezkurrena VOCES ENCARNADAS EN LA NOVELA <i>AULKI JOKOA</i> (2009) / <i>EL JUEGO DE LAS SILLAS</i> (2012) DE UXUE ALBERDI | 186 |
| Daria A. Eismann “MY ENTIRE BODY IS A WOUND”: PAIN, CORPOREALITY AND THE “OTHER” IN <i>PATRIA</i> BY FERNANDO ARAMBURU | 201 |
| LOS EDITORES | 233 |

GARBIÑE IZTUETA-GOIZUETA

ORCID: 0000-0001-9036-1739

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

GORPUTZ GAI XOAK ETA ALTERITATE ESPAZIOAK: EREMU UKIGARRI EDO UKIEZINAK EGUNGO EUSKAL ETA ALEMANIAR LITERATURAN¹

Identitatea, alteritatea eta periferia postmodernitatearen agertokiko erdigunean dauden kontzeptu eta gaiak dira. Postmodernitate historikoa deritzonak, 68ko iraultzarekin lehen izpiak ikusi eta mugimendu bakezalearen indartzearekin, Berlingo Harresiaren erortzearekin eta Ekialdeko sistema estalinisten desagertzearekin gailurrera iritsi zen (De Toro 1991: 445, Esparza 2017: 37), eta eraldaketa sozial, politiko eta ekonomikoek kultur diskurtsoaren eraldaketa ere ekarri zuten. Teoria eta egia absolutuen desagerpena eta diskurtso anitzen eta periferikoen beharra, hau da, modernitateko diskurtsoak zalantzan jartzea (Lyotard 1986), testu itxien desagerpena (Foucault 1999) eta testuen polifonia (Derrida 1967) ardatz dituen munduarekiko hurbilketa hau literaturan ere gauzatu da. Hizkuntzaren esperimendazioa, subjektu ekintzailearen desegitea, irakurlearekin jolasa, hainbat genero eta aipuekin testuarterkotasuna, eta testuaren polisemia dira, labur-labur esateko, ezaugarri nagusienak.

XX. mende amaiera eta XXI. mende hasierako narratibaren azterketetan, postmodernitateko identitatearen azterketa fenomeno orokor transnazionala izan da. Aztergai giltzarria ere izan da hainbat lanetan bai Berlingo Harresiaren desagerpen ondorengo ekialdeko alemaniar literaturari dagokionez (Sistig 2003), eta baita euskal literaturan ere (Esparza 2017, Kortazar 2007, Olaziregi 2009, Gabilondo 2008, Aldekoa 2006).

Subjektu postmodernoa hibriditate, konplexutasun eta desegite prozesuan murgildua dago, memoriaren bidez berre irakitzeari ekiten dion bitartean, Kortazarrek (2007) euskal literaturari buruz egiten duen baieztapenaren ildotik. Alemaniako Ekialdeko literatura 1989az geroztiko garaian identitatea eta Alemaniako Errepublikako Demokratikoaren memoriaren arteko harremana lantzen aritu da hainbat

¹ Argitalpen hau FFI2017-84342-P (MINECO) ikerketa proiektuan sartzen da.

ikerlan foku ezberdinekin (Cambi 2008, Köhler 2007, Eke 2013, Goudin-Steinmann, E. & Hähnel-Mesnard 2013).

Hau guztia kontuan izanik, artikulu honek 1970eko eta 80ko hamarkadetan jaiotako bi euskal egile (Ixiar Rozas eta Uxue Alberdi) eta ekialdeko alemaniar bi egile (Paula von Fürstenberg eta Maren Wurster) aztertzea proposatzen du, identitate eta memoriaren lanketari egindako ekarpena azpimarratzeko. Izan ere, alde batetik, beren jatorri eta belaunaldiari erreparatuta, badituzte ezaugarri amankomunak. Aldaketa historiko, politiko, sozial eta kultural izugarri baten atarian edota urte gutxi beranduago jaiotako dira: Alemaniako Errepublika Demokratikoa eta Berlingo Harresiaren desagertzea Fürstenberg eta Wurster-en kasuan eta Frankismoaren amaiera Rozas eta Alberdiren kasuan. Lauak ere kultura-periferian, kokapen minorizatuko espazio batean eta alteritat ean kokatuak daudela esan dezakegu: jada desagertuak den Alemaniar Errepublika Demokratikoko komunitate kulturalako erreferentziak kontziente edo inkontzienteki izateagatik Fürstenberg eta Wurster-en kasuan, edota euskal hiztunak izateagatik Alberdi eta Rozas-en kasuan, sozializatuak izan diren jendarteko kanonarekiko leku periferikoan kokatuak daude. Diskurtso kanonikoak gaindituztat ematen duen iraganaren oroimen propio gutxi edo batere ez dituzte, gainera. Beste alde batetik, beren literatur-lanetan isildutako iraganak eta bat-bateko amaierak bortizki eragindako jendarteetan identitatea eta alteritatea lantzen dituzte, memorian fokua jarriz eta estrategia narratibo gisa gorputz gaixoak aurkeztuz. Esan bezala, modu ezberdinetan bada ere, lau egile hauen lan hautatuetan periferia eta alteritatea irudikatzen dira. Bi gai hauek postmodernitateari estuki lotuak badaude ere, gure saiakera egile hauek postmodernitateari egiten dioten ekarpena baino **post-belaunaldiko** kide gisa dagokien memoria sozial eta kulturaleri egiten dietena aztertzea izango da.

Memoria ikasketetan **post-belaunaldia** (Hirsch 2012: 3, Hoffmann 2004: 187 Erll 2014: 399)² deritzonari erreparatzen badiogu ekialdeko alemaniar eta euskal literaturan, Alemaniako Errepublika Demokratikoaren desagertzearen edota Francoren diktaduraren ondoren edo azken urteetan jaiotakoak lirarteke. Memoriaren lanketak baditu kasu honetan bere berezitasunak, izan ere, oroimen propioak izateko zailtasunak dituen belaunaldia da eta Alemaniako Errepublika Demokratikoak edota Frankismoak beraiengan izandako eraginaren arrastoei bide ezberdinetatik

² Eva Hoffmann-ek *Shoah*-ren memoria ikerketaren testuinguruan sortutako kontzeptu hau familia arloan kokatzen den **bigarren belaunaldi** adierazpenaz harago doa. Hoffmann berak post-belaunaldiko kide gisa bere burua honela identifikatzen du: aurreko belaunaldiek Shoah-n pairatutakoaren legatuak jazarri egiten du eta legatu horrekin zerbait egiteko erantzukizuna sentitzen du. Erll-en hitzetan indarkeria eta trauma jasan duten guraso edota arbasoen ondorengo gisa beren burua identifikatzen dituzten belaunaldiak dira.

egiten diete jarraipena beren literatur lanetan. Lau egileon bide ezberdinek, hala ere, *topos* bera erabiltzen dute, gaixorik dagoen gorputzaren-a, pertzepzio-espazio berriak sortzeko, alteritatearen esperientzia birpentsatzeko eta iraganei buruzko memoria post-belaunalditik lantzeko.

Azterketarako corpora bina literatur-lanez osatua izango da literatur-eremu bakoitzean: euskal eremuan Uxue Alberdi-ren *Jenisjoplin* (2017) eleberrian eta Ixiar Rozas-en *beltzuria* (2014) saiakeran; Paula Fürstenberg-en *Familie der geflügelten Tiger* (2016) eta Maren Wurster-en *Das Fell* (2017) ekialdeko alemaniar eremuan.

1. KONTZEPTUAK

Alteritatea eta memoria bi kontzeptu gako izango dira lau literatur-lan hauen hurbilpenean. Alteritatea, besteak beste, identitate kontzeptuarekin elkarrizketan definitzen da, eta bietan espazio, gorputz eta pertzepzioaren rol erabakigarria azpimarratzekoak dira. Henri Lefebvre (2011) eta Yi-Fu Tuan-ek (2001) espazioaren kontzeptuari buruz garatu dituzten ildo teorikoei jarraituz, baita Martina Löw-i (2011) ere, gorputza, ezinbestean espazioaren produkzioan parte hartzen duen faktoreetako bat den heinean, bereziki aintzat hartzekoa da. Izan ere, espazioa prozesu sozial gisa ulertuko dugu, gorputzak, subjektuak eta beste espazio batzuk harremanetan jartzen diren testuinguru jakin batean.

Aztergai ditugun eleberrietan gaixorik dauden gorputzek alteritate guneak sortzeko orduan duten giltzarri rola azpimarratu nahi da. Maurice Merleau-Pontyri jarraituz, mundua hautemateko bide bakarra da gorputza, bere bidez behatzen ditugu kanpoko objektuak (1999: 87–216). Aldi berean, Merleau-Ponty-k, gorputza munduaren hautemate prozesuan eragile erabakigarri denez, behatzeko objektu kategoria ere esleitzen dio, baina ezin ahantzi gorputzak munduari buruz ematen digun informazioak espazio jakin batetik, momentu jakin batean, memoriaren eragina duela eta gorputz-baldintza jakin batzuetan iragazitakoa dela: gorputza ez da iragazki neutrala, ez orojakilea ezta egonkorra ere. Gorputza eta espazioaren arteko funtsezko loturaren adibide gisa aipatzen du objektuek beti alde bakarra agertzen badigute, leku jakin batean dagoen gorputzetik hautematen ditugulako dela (Merleau-Ponty 1993: 88–89). Bestalde, gorputzari iritsitako estimuluak hautematerakoan memoriak duen eragin erabakigarri ere azpimarratzen du: larruazalaren eremu jakin bat ile batekin estimulatu bada era jarraian, lehen aldietan pertzepzioa argi identifikatu eta kokatzen du gorputzak. Estimulua are eta maizago errepikatu, bere kokapenak zehaztasuna galtzen du eta sentsazioa ez da hain zehatza, azkenean gorputzak estimulua sentitu ere egiten ez duen arte (Merleau-Ponty 1999: 93–94).

Hausnarketa hariari jarraituz, memoria tarteko, gorputzak estimulu jakin bati **berri-tasunik** antzematen ez dion momentutik, ez du hautemango. Horregatik guztiagatik beharrezko ikusten du Merleau-Ponty-k gorputza aztergai izatea eta memoriaren indarra ez ahaztea pertzepzioa aztertzerakoan.

Gurera ekarrita, **post-belaunaldia** deritzonak oroitzen ez duen iragana birpentsatzeko eremuak sortzean, pertzepzio-espazio berriak sortzean eta alteritatea literarizatzean, lan hori nolako gorputzen bidez bideratzen duten aztertzea nahitaezko pausutat hartzen dugu. Gainera, belaunaldi bereko idazle hauek beren literatur-lanetako pertsonaia nagusiak sortzerakoan gorputzei espazioan esleitu dieten kokapena eta gaixotasunarekiko lotura ardatz esanguratsuak direla ulertzen dugu.

Gure azterketarako lagungarri dira Virginia Woolf eta Susan Sontag idazleek gorputz gaixoei artean egin dezaketen ekarpenaren inguruan utzi dizkiguten saiakera bana. Woolf-en “On being ill” (1926) saiakera erabakigarri izan zen jendarteak batez ere emakume gaixoarekiko duen pertzepzioan garai berri bat has zezan. Idazle britainiarrak hizpide ditu, ez bakarrik gaixotasunak berarekin dakarkeen isolamendu, bakartasun eta zaurkortasuna, baita gorputz gaixoak errazten duen haurtzarorako itzulera ere. Gorputza eta hitzen arteko harremanari buruz ere hausnartzen du, gorputz gaixoak esperimendatzen duena adierazteko hizkuntzaren ez-gaitasuna azpimarratuz. Ziurrenik Woolf-en ekarpen nagusia gaixotasunari lotutako **momentu biziak** (*moments of being*) kontzeptua da: gaixotasuna balio erantsi gisa aurkezten du, gaitasun ia mistikoa ematen baitio gaixoari, gauzei esanahi berria sortzekoa, azalekoaz harago ikus ahal baitu eta existentzia modu erabat berrian ulertzeko gaitzen baitu.³

Sontag-i dagokionez, “Illness as Metaphor and AIDS and its metaphors” saiakeran gorputz gaixoen gaineko diskurtso kulturalari buruz eskaintzen duen hausnarketa aintzat izatea ezinbestekoa da: gaixotasunarekiko tradizionalki nagusitu den hurbilpen metaforikoa eta berak dakarren zama morala baztertzen ditu, diskurtso tradizional eta irakurketa metaforiko horretan zuzenean edo zeharka gorputz gaixoen erruduntasun zehaztugabea egotzen dela azpimarratuz. Halaber, Sontag-ek literaturaren eta artearen harrera sentsoziala proposatzen du “Against interpretation” (1964) saiakeran: “What is important now is to recover our senses. We must learn to see more, to hear more, to feel more. [...] In place of hermeneutics, we need an erotics of art (1964: 9–10).

³ “in illness, the words give out their scent, and ripple like leaves, and chequer us with light and shadow, and then, if at last we grasp the meaning, it is all the richer for having travelled slowly up with all the bloom upon its wings.” (Woolf 1926: 41).

Memoria kontzeptuaren azterketarik esanguratsuenak gure azterketarako Maurice Halbwachs eta Aleida eta Jan Assmann-enak direla esan daiteke. Denok ere gizabanakoaren prozesu subjektibo gisa ulertzen dute, eremu kultural eta kolektiboarekin saretuta dagoena. Iraganeko esperientziei, ezagutzei eta identitateari esanahia emateko prozesua da, non norbanakoaren jarduera prozesu kolektiboarekin gurutzatzen den. Halbwachs-en hausnarketari erreparatzen badiogu, oroitzapenei esanahia ez die jendarteak soilik ematen, baizik eta subjektu bakoitzak bere leku bereizitutik, talde, jendarte edota kultura jakin bateko kide den heinean, bere memoria berezitua eratuko du (Halbwachs 1950: 26–35). Beraz, memoria anitza da, eta **subjektibotasuna**, **aniztasuna**, **prozesua** eta **transferentzia** memoriak bere baitan dituen kategoria ardatzak dira.

Assmann-tarrek lantzen dituzten memoria mota ezberdinetatik (komunikatiboa, soziala, kolektiboa eta kulturala) gure azterketarako memoria komunikatiboa, soziala eta kulturala lirateke esanguratsuenak. Memoria komunikatiboa gehienez ere hirugarren belaunaldira iristen da eta eguneroko komunikazioan eraten da. Memoria sozialak ere badu iraungitze data, bizipen berak partekatzen dituen gizatalde batek solasaren bidez oroitzapenak partekatu eta ikuspegi ezberdinetatik abiatuta trukatzten dituzten bitartean iraungo baitu. Memoria kulturala, aldiz, erakunde mailako komunikazioaren emaitza da, eguneroko bizitzatik urrunago dago eta erritu, monumentu eta testuen bidez iraganeko esperientzia, ezagutza eta identitatea transmitituz eraten da (Assmann 2006: 2–3). Gainera, Jan Assmann eta John Czaplikak 1995ean idatzitako artikuluan bi motatako memoria hauei *the concretion of identity* delako funtzio nagusia esleitzen die. Bai memoria komunikatiboak eta baita kulturalak ere “preserves the store of knowledge from which a group derives an awareness of its unity and peculiarity. The objective manifestations of cultural memory are defined through a kind of identificatory determination in a positive (“We are this”) or in a negative (“That’s our opposite”) sense.” (Assmann eta Czaplika 1995: 130).

Gure azterketan, zentzumenetatik hurbilduko gara gorputzetara, espaziora, alteritatera eta memoriara. Zentzumenen paradigma erabiliz, belaunaldi bereko egileen arteko antzekotasunei eta desberdintasunei erreparatuko zaie alteritatearen eta memoriaren literarizazioan Alemaniako eta Euskal Herriko esparru literarioan. Bi zentzumen dira hizpide azterketa honetan: ukimena eta entzumena. Zentzumen hauek aztertuz belaunaldi honetan memoria komunikatiboa, soziala eta kulturala nola lantzen diren galdetuko diogu geure buruari.

2. GORPUTZ GAIXOEN ALTERITATEA ETA MEMORIA ALEMANIAR ETA EUSKAL ADIBIDEETAN.

2.1. UKIMENAREN BIDEZ ALTERITATEA ETA MEMORIA *DAS FELL* ETA *JENISJOPLINEN*

Das Fell eta *Jenisjoplin* eleberrietan alteritatea ukimenarekin zerikusia duten fenomeno, nahasmendu, gorputzeko gaixotasun edota ondorioei zuzenean lotuta dago. Larruazalaren eta inguratzen duen munduaren arteko erlazio problematikoa aurkezten da bi lanetan.

Jenisjoplin-en Nagore Vargasek (edo Jenisjoplinek, aitik deitzen dion bezala) lehen pertsonan istorio pertsonal dramatiko bat kontatzen du, eta,aldi berean, 80ko hamarkadatik milurteko berriaren bigarren hamarkadara arte euskal jendartearen historia sozial asko hartzen ditu bere baitan. Nagorek hiru kategoriatan oinarritzen du bere nortasuna: euskal militantzia (irradi libre periferikoa), sexua eta disidentzia. Familiak jatorri hibridoa du (ama euskalduna, aita etorkin familiakoa), langile-klase eta etorkinen eremuan kontzienteki kokatua du beraz bere burua, eta droga-mendekotasunak eta HIESak bere izeba Karmenen bizitza eta familia osoaren historiari eragin zieten. Nagore kolektibo marjinalen aldean kokatzen da, bizitza ikuspuntu horretatik ikusten du. Nagoreren birkokatze sakona, subjektu gisa, berari ere HIESaren antigorputzak gorputzean topatzen dizkiotenean hasten da, gaixotasunaren kronika da eleberria. Seropositibo gisa duen nortasun berriak, besteentzat kutsatzeko etengabeko arrisku den heinean, azalen arteko kontaktuari eragiten dio, besteekiko intimitateari. Postmodernitateko identitatearen arazoan ildotik, Nagorek bere identitatea erabaki dezakeen subjektu aktibo izateari utzi eta zientziaren, medikuntzaren eta jendartearen kanonak seropositibo den heinean ezartzen dion **alteritate** izaera-ekin topo egiten du, eta gatazkan murgiltzen da.

Egiari zor, alteritatea Nagoreren haurtzaroari eta nerabezaroari buruzko atzera begirako pasarteetan jada agertzen da, eta hurrengo pasartean nabarmentzen da, 8 urterekin aitari bere **maketo**⁴ identitateari buruz galdetzen dionean;

—Aita, gu maketoak gara?

Matrailezurra estutu zuen.

—Hi horiek bezain euskalduna haiz, aditu?-esan zuen eskaileretan behera zetozenak seinalatuz.

⁴ XIX. mendearen amaieratik aurrera Espainiako etorkinak izendatzeko erabilitako hitz iraingarria (Arozamena 2020).

Ez nintzen kontra egitera ausartu, baietz egin nion buruaz, nire baitan taxuzko euskaldunak nor ziren argi neukan arren: ikastolakoak, arratsaldeetan solfeora, euskal dantzara eta ingeleseko partikularretara joaten zirenak, azoka txikiko arroparik ez zutenak, eskolarteko kiroletan makinaz inprimaturiko letra dotoredun elastiko eta galtzamatz uniformatuak zerabiltzatenak [...] Aitarentzat ez beste guztientzat, euskaldunak hauek ziren: Lasalden bizi ez zirenak, besteak. (JJ 72)⁵

Gorputz gaixoaren bidez, alteritate horren dimentsio berri bat lantzen da eleberrian, aztertuko dugun bezala, eta euskal memoria kulturalari hurbilketa hibrido eta integrala ahalbidetuko da.

Das Fell lanean ahots narratzaile batek hirugarren pertsonan eta orainaldian Vic protagonistaren bidaia kontatzen du, Berlinen hasi eta Itsaso Baltikoko zehaztu gabeko herri batera bizikletaz egindako bidaia, bere mutil-lagun Karl-en atzetik, motxilan harri bat duela. Karl-ek, udako oporretan bere emazte ohiarekin eta alabarekin egun batzuetako egonaldia egitea erabaki du, Vic bazterrean, periferia emozionalean utzita. Mendeku goseak bultzatuta hasten den bidaia, ordea, ikasketa bidaia bihurtzen da. Bidaian zehar, Vic-en gorputzak hipertrikosi sindromea jasaten du, bere bizkarrean ile lodi eta iluna hazten hasten da eta, horren ondorioz, egunez egun bere larruzalak inguruarekiko duen pertzepzioa eraldatzen da. Era berean, Vic-ek bere gorputzarekiko eta besteekiko harremanetan duen lekua birnegoziatzeko prozesua burutuko du, bidean topatuko dituen ezezagun, lagun berri eta amorante eta bisitatuko dituen neba eta familiarekin partekatuko dituen momentuetan zehar. Emakumezko subjektu emozional eta sentsual den heinean bere buruaz duen pertzepzioak ere agertzen du bilakaera bidaian zehar. Itsaso Baltikoan Karl eta familiaren zelatan egon ondoren, Vic mendekua bete gabe eta bakarrik itzultzen da Berlinera.

Bai Nagore eta bai Vic-en kasuan identitate eta alteritaterekiko harremana birpentsatzen dute, bere birkokapena hausnartzen dute, eta prozesu horren erakusleho dira bi protagonistek egiten duten gorputzaren berrezagutza prozesua eta gorputz gaixo hauek ukimenaren bidez egiten duten errealtatearen berrirakurketa. Birkokapen prozesu honetan *numinosum*, periferia eta alteritate kontzeptuak erabakigarriak izango dira.

2.1.1. *Numinosum*-a.

Alteritatea kontzeptu gisa hausnartzeko bidean lehenik *numinosum*-arekin harremana birnegoziatzen da bi literatur-lanetan. Rudolf Otto filosofo, teologo eta teologiaren historiagileak 1917 urtean plazaratutako *Das Heilige – Über das Irrationale*

⁵ *Jenisjoplin* eleberriko aipuen erreferentziak JJ eta orrialde zenbakiaren bidez zehaztuko dira.

in der Idee des Göttlichen und sein Verhältnis zum Rationalen lanean alteritatea transzendentzia erlijiosoaren testuinguruan kokatzen du eta anbiguotasunaren eremuan: Bestea transzendentea da norbera hilkorra delarik, eta beste transzendete hori beldurgarri eta aldi berean liluragarria da (Otto 1917: 31). Bestalde, bestearekiko esperientziak aurrealdintza gisa norberaren ezagutza berria ere eskatzen du: “a due growth in suggestibility and spontaneity and responsiveness to external impressions and internal experiences” (Otto 1917: 128). Bestea beldurgarri eta liluragarri den heinean, norberaren kokapena beldur eta liluraren inguruan ere behatu eta sentitzen du subjektuak.

Jenisjoplin eta *Das Fell* eleberrien kasuan, protagonista eta narratzaileek gaixotasunaren ondorioz larruazalarekin duten harremana munduan birkokatzeko eta memoria berridazteko adierazpen bihurtzen da. *Numinosum*-a Nagoreren gorputzean kanpotik barrura sartutako birusaren ondorio zuzena den bitartean, Vic-en larruazaleko nahasmendua gorputzak berez barrutik sortu dio. Lehena, protagonistak berak aitortzen duen bezala, gorputzeko atal zehatz batean kokatzea ezinezkoa da, aldiz bigarren kasuan bizkarreko eremu jakin batean ikusgai dago. Nagoreren gaixotasuna kutsakorra den bitartean, Vic-en gorputzak ez du besteenganako arriskurik. Beraz, kontrako norabideetan garatutako gaixotasunen aurrean aurkitzen da irakurlea, eta *numinosum*-a landu eta gorputzarekiko eta munduarekiko harremanaren birmoldaketa prozesua aztertzeak ondorio interesgarriak eskaintzen dizkigu.

Jenisjoplinen kasuan, Nagorek bere gorputz gaixoaren eta munduaren aurrean birkokatzeko prozesuan hiru fase gainditzen ditu:

- 1) Lehen fasean (2010), seropositibo izatearen diagnosiak bat batean *numinosum*-a oihartzuna esna arazten dio: aldi berean beldurgarri eta liluragarri antzematen du bere gorputza. Alde batetik medikuen diagnosiaren ondoren, zientziaren autoritatearen araberrako nortasun berria ezartzen zaio, alteritatearen izaera eta kutsagarriaren marka, Nagorek berak hasiera batean barneratzen duena: “Lehenengoz atera nintzen kalera diagnostikodun gorputzean, poltsikoan lehergailu bat daramana bezala. [...] Heriotza-printza bat nuen orain, identifikatu ezin zen gorputz atalen batean” (JJ 40). Haatik, bere gorputza osasuntsu eta sendo sentitzeak liluratzen du Nagore, eta *numinosum*-aren aurrean, elementu beldurgarriaren ezeztapenerako eta medikuen agintaritzarekiko matxinadarako joera bortitza du (JJ 103). Norberaren identitatearen jabekuntza mantentzeko saiakera garaia da, inguruan bere seropositibo izaerari buruzko isiltasuna ezartzen duelarik, kanpoko indarrek bere identitatea defini ez dezaten. Borroka gorputz barnean eta kanpoan ere sumatzen du, etsaia gorputz barnean eta medikuengan topatzen baitu: “Puertas doktorearen kontsultatik nire gorputzaren ertsaituta ateratzen nauk beti” (JJ 151). Etopa honetan *numinosum*-aren

alde liluragarriko pultsioa du. Hala ere, medikuen egiarekiko disidentzia fase honetan larruazalak adierazten dio *numinosum*-ak bi alde dituela. Izan ere, Luka bikotekidearekin bizitza sexuala bat batean desagertzen da kutsatzeko beldurra- ren ondorioz, sexualitatearen eremua, larruazalaren eremua, ere borroka eremu bihurtu zaiolako, “ferekak erresistentziarik jarri gabe hartzea bera erronka bilakatu” (JJ 104) zaiolako Nagoreri. Beldurraren aldeaz gain, alde liluragarria ere ahalbidetzen dio azalak, sentsualitatezko une axolagabe bakanek azalaren bidez bizirik sentiarazten baitute, bikotekideak ikusi gabe ezezagun batekin elkarren kontra dantzan hatz-mamiekin sabelaldea laztanduz eta musu luze batez plazerraren memoria esnatzen zaion pasartean (JJ 189–190), esaterako.

- 2) bigarrenean, gorputzean alteritatea ezagutzen ikasten du Nagorek eta bere alteritatea onartzeko lehen pausua ematen du. *Numinosum*-aren alde beldurgarria aitortzea dagokio. Pneumonia bortitzaren ondorioz ospitaleratuta dagoen bitartean, esperientzia atxiloketa (JJ 212) metaforekin adierazten du Nagorek berak. Seropositiboa izatea aitortu (JJ. 211) beharrean ikusten du bere burua kartzelan bezala. Izan ere, Nagore bere gorputz gaixotik disidentzian kokatzen da: erietxean egon bai, baina antirretobiralen tratamendua ez onartzeak alteritate bikoitzera darama, bai gorputz gaixo eta kutsakor den heinen, bai zientziaren egiak agintzen duen bidari uko egiten diolako (JJ 215). Garai honetan larruazalaren bitartez sentitzen duenak ematen dio bere alteritate bikoitzak inguruarekiko sortzen dion distantzia. Gertukoen eta bere larruazalaren arteko distantziaren behatzaile bihurtzen da Nagore: “Ez ninduten ukitzen. Ez Lukak ez aitak ez amak. [...] hiruretan inor ez zen nigana gerturatzen, ez nik haiek sentitzeko adina. Aldamenean esertzen ziren, niretzat iritsezina zen distantziara” (JJ 215).
- 3) Hirugarren fasean, nitasunaren eta alteritatearen arteko adiskidetzeta ikus dezakegu, *numinosum*-aren osotasunera hurbiltzea. Bigarren erietxeratzea monasterioaren esperientziarekin (JJ 275) alderatzen du protagonistak, kontenplazio-esperientzia bihurtzen da beretzat. Barne-oreka ezagutzen du, ni-a bestearengan ezagutzen du eta bestea ni-arengan: “Azaltzen ez nekien hura guztia nire baitan zegoen instalatuta. [...] nire baitan zegoen dena” (JJ 276). *Numinosum*-aren antzera, hitzen bidez adieraztea ezinezkoa den “zera” beldurgarri eta liluragarria hautematen du beregan.

Munduarekiko harremanean ere, disidentzia eta borroka politikoa eta soziala alde batera utzi eta tratamendua jasotzea onartzen du (JJ 218). Gorputza ere kanpo- tik behatu eta birkokatzen du sexualitateari, erotikari eta sedukzioari dagokienez, eta kontaktetan halaber gatazka politikoa, gerra, bataila, amore ematea bezalako kontzeptuekiko subjektu gisa ere birkokatu egiten da bere diskurtso pertsonala.

Larruazalaren deserotizazio prozesuan zehar, Nagore gorputzaren subjektu gisa gailentzen da azken bi faseetan, besteekiko gaixotu aurretik zuen lekuaz eta portae-raz ohartzen da, eta leku berri batera mugitzen da gizonezkoen begirada eta ahots-ari dagokionez: “[Gaixotu aurretik] Larruaren bidez iristen nintzen samurtasunera, batasun sentimendura, eta are onarpen intelektualera” (JJ 248). Azalaren berri-rakurketarekin batera espazio berriak sortzen ditu emakumezko pertsonaiekin, batez ere Irantzu lagun minarekin eta amarekin.

Esan dezakegu larruazala *numinosum*-aren ezagutza prozesuan gakoa dela. Lehe-nik eta behin, gaixotu aurreko gorputzeko larruazala pultsio eta ehizaren eremua zen. Gorputz gaixoak, aldiz, lehen garaian bestearen ukituari erresistentzia dio; biga-rren garaian, Nagoreren hitzetan, ingurukoei “ezinezkoa eskatzen nien: nire azalaren barnetik eutsi nintzatela” (JJ 216), hau da, ukimena kanpoko munduarekin aktiboki harremantzeko baino “barneko ukimena” – ren beharra aitortzen dio bere buruari, gorputz barneko ahultasunari ingurukoaren babesa azal barnetik jasotzea irudikatzen du; azken fasean, larruazalaren barnean behar duen guzia topatzen du, gabezia egoera atzean uzten duelarik.

Das Fell eleberriaren kasuan, Vic-en hipertrikosi sindromearen bilakaera Ipar Itsasorako kanpo eta barne bidaiarekin batera burutuko da. Autoezagutza prozesu bikoitza dugu aurrean: batetik, bidaian zehar bere Berlin erosotik irten eta peri-feriako herrixketako bestearekin aurrez aurre bere joera, portaera, pentsamendu eta oroimenak aztertuko ditu eta bere begiekin zuzenean ikusi ezin duen hipertri-kosiak jotako bizkar eremuaren autoezagutzaren bidea egingo du, bestetik. Vic-ek bidean geratzen den leku txiki bakoitzeko biztanleentzat ispilu eta bestearen fun-tzioa betetzen du, eta aldi berean ispiluan etengabe bere burua behatzeko ariketa egiten du, *numinosum*-a bizkarrean duelako, bizkarreko lekurik ikusgaitzenez. Horrela, eleberriak alteritatearen ikusgaitasunaren eta ikusezintasunaren eta ukiga-rritasun eta ukiezintasunaren arteko jokoak azaltzen digu Maren Wurster-ek

Ispilu aurreko pasarteez gain, narratzailearen ukimenaren bidezko deskribapen sensorialak oso zehatzak dira (F 52–53)⁶, Kafkaren *Metamorfosiare*kiko lotura egitea sahietsezina gertatzen delarik. Autopertzepzioaren aldaketa, ukimenaren bidezko autoesplorazioa zuzenean lotuta dago bere bizkarrarekiko eta baita mun-duarekiko esperientzia sensorial berriekin.

Minaren sentsaziotik hasten da azalaren eraldaketa (F 25) eta minak gida-tuta ekiten dio Vic-ek azalaren behaketari. Lehen momentuko ezustekoaz gain, Vic-en *numinosum*-arekiko harremana ez dago bere gorputzarekiko beldurrak gain-ditua, besteen begiradarekiko beldurrak baizik. Bakartasunean etengabe aztertzen du

⁶ *Das Fell* eleberriko aipuei F eta orrialde zenbakiaz egingo zaie erreferentzia.

numinosum-eezko eremu iletsua, ilearen hazte prozesua eta kokapen zehatza etengabe ukimenaren bidez neurtzen ditu: “die Stoppeln stellen sich unter den Kuppen auf, piksen, den Rücken hinab, die Haare drücken sich borstig an die Haut. Sie spült Rücken und Hände ab, tastet wieder” (F 52–53). Sentipen ezezaguna izateak ez du beldurrik sortarazten Vic-engan, are gehiago bizkarreko azalaren ukimen gaitasuna indartzen da bidaiari zehar eta aldatu egiten du bere bizkarrak ukitzen dituen objektuen esperientzia sentsoriala (arroparen presioa modu berrian hautemango du (F 55), bizkarreko ileek azalarengan sortzen duten ukimen sotilaz jabetzen da (F 66–67); eremu iletsuak nortasun propioa duen espazioa sortzen du gorputzean, eta eserleku berria zurruntasunetik erabilerarekin goxotasunera pasatzen den bezala, Vic-en *numinosum*-a ere eremu zakar izatetik (F 79) goxora pasatzen da (F 94). Bestalde, aldizka bere buruaren ukimena beldurgarriagoa (F 112) bihurtzen da eta aldiz ohitu eta egokitu egiten da (F 133, 139). Neutralki eta deskribapen zehatzekin azaltzetik, *das Fell* (F 76, “larrua”, animalien azala) izena emateko bidea ere egingo du narra-tzaileak, azken batean protagonistak berak ere “mein Fell” (nire larrua) adierazpenarekin *numinosum*-aren alderik beldurgarriena bere egiten duen arte, eta behaketarekin zerikusirik ez duen keinua bere eginez, espontaneoki maiz ferekatzen duen arte.

Esan gabe doa, azaleko nahasmendu honek Vic-en feminitatearen krisia ere eragiten duela: bere bikotekideak Vic egun batzuetarako baztertu eta emazte-ohiarekin oporretara joan den egun hauetan, periferia emozionalera baztertua izan den honetan, krisi egoeran dagoen unea izanik, gorputzean sortu zaion **besteak** gorputza eta besteak modu berriekin behatzea dakar. Ispiluaren aurreko pasarte errepikatuak, bere ohiko arropari uko egitea bizkarra agerian legokeelako, bere azal berria ikusezin bihurtzeko saiakerak, horrek guztiak Vic-en feminitatea birdefinitzeko prozesuari laguntzen dio, harik eta istorioa ixtean, Berlinerako itzuleran, protagonista komu-netik irteten den arte, orain arte ekidin duen soineko batekin, bizkarra agerian. Bidaiaren jatorrizko helburua Karl-engan mendeku hartzea bazen ere, autoezagutza prozesu honen amaieran gainditua du Vic-ek mendeku egarria, eta Vic-ek *numinosum*-aren aurrean bere feminitatea birkokatu duen bezala, bere bizitza emozionalean ere bere burua birkokatu du, Karl-en bizitzako periferiatik irten eta bere ibilbide propioaren erdigune izanez amaitzen baita kontakizuna.

2.1.2. Periferia eta memoria

Jenisjoplin eleberrian gorputz gaixoa eta *numinosum*-a parekatzearekin bi gai nagusi proposatzen dira: subalternitateari kritika eta memoriaren birkodetzea gorputz gaixoaren (beraz alteritate eta periferiaren) ahotsetik eta irakurketatik abiatuta.

Nagoreren bigarren fasetik aurrera bere gorputzarekiko duen begiradaren eta ukimen zentzuan aldaketa jada aipatu da. Are gehiago, horrekin batera hainbat

kontzeptu sozial eta politikoen inguruan ere bada aldaketa. Hauen artean daude hegemonia, periferia eta mendekotasunari buruzko hausnarketak eta hauen inguruko portaera sozialei kritikak.

Nagorek bere burua gaixo aitortzeak eta seropositibo gisa identifikatua izatearekin batera Uxue Alberdik mahai gainean jartzen du gorputz gaixoei agintaritzarekiko duten subalternitatea eta periferia egoera (JJ 255). Testuinguru honetan euskaltasuna eta erdaltasunaren mugek garrantzia galtzen dute Nagorerentzat, periferia, alteritatea, boterea eta memoria sozial eta kulturalaren modu berri batean, modu hibrido eta integralagoan ulertuko du. Ahizpatasun espazio berrietan garatzen da Nagoreren diskurtsoa foucaultiarra bere pertzepzio berrien inguruan: nola aldatzen diren inguruko portaerak harekiko "gaixo" identitatea ezarri bezain laster, nola eraldatzen den alteritateaganako begirada, gorputz batzuk nola kokatzen diren botere eta nagusitasun-kokapenetan gorputz gaixoarekiko (JJ 255).

Bilakaera prozesuan bigarren garaitik aurrera alteritatea kutsu politiko eta soziala alde batera utzi eta dimentsio intimoago eta emozionalago batera pasatzen denean, gainera, bere gorputz gaixotik familiako memoriaren berrirakurketa eta berraurkuntza ere egiten ditu. Bereziki 20 urterekin gaixotasun berak heriotzara eramandako izebaren berrirakurketa eta memoria azaleratzen dira. Nagorek bere gaixotasunetik orain beste modu ukigarriagoan oroitzen du izeba eta haren gaixotasuna:

Izeba Karmenekin oroitzen nintzen, nola eskatzen zigun, hilzorian zegoela, estuago besarka genezala. Amama eta biok haren gorputzaren barrura sartzeko ahalegin desesperatua orduantxe ulertu nion. Haren ohearen barruan nahi gintuen, azalaren barruan ezin gintuelako. (JJ 215-6)

Azalaren pertzepzio berriek ematen diete bide Nagoreri izebaren memoriara modu sakonagoan hurbildu eta bai pentsamenduetan, ametsetan eta familiakoekin elkarrizketan denboraren poderioz alboratuak ziren oroitzapenak memoria komunikatibo eta sozialaren bidez azaleratzeko.

Maren Wurster-ek larruazal gaixo edota nahasiaren inguruan proposatzen duen memoria lanak baditu hainbat berezitasun. Lehenik, azaleko trikinosi fenomenoaren eta Vic-en bizkar eta behatz-puntek dituzten sentsazio berrien eskutik, memoria kognitiboaren eta sentsorialaren arteko bereizketa proposatzen da. Azpimarratzekoa da Vic-en esperientzia berria: zerbait kognitiboki gogoratzea bainan sentitu ezin izatea: "Aufgewöhlt merkt sie, dass sie zwar noch weiss, dass ihr voriges Körpergefühl anders war, es aber nicht mehr empfinden kann" (F 60)⁷.

⁷ "Asaldatuta ohartzen da, jakin badakiela lehenagoko gorputz-sentsazioa ezberdina zela, bainan ezin duela hura jada sentitu" (Itzul. Garbiñe Iztueta)

Bigarrenik, alteritatearen eta memoriaren arteko loturari dagokionez, interesgarria da hurbilpen konbentzionaletatik urrundu egiten dela eleberria. Berлиндik Itsaso Baltikorako bidaian Alemaniako Mendebaldeko eta Ekialdeko elementu eta pertsonaiak agertzen badira ere, eta garai historiko eta politiko ezberdinei aipamen bakanak egiten badira ere, erdigune eta periferia politikoen arteko edota Alemaniako Mendebaldearen eta Ekialdearen arteko harremanetan alteritatea eta memorian baino, hiriaren eta landa-ingurunearen arteko harremanetan garatu eta eraikitako alteritate eta memorian jartzen da fokua. Etxe isolatuen, kanpin eremuen, ostatu txikien, nebaren etxeko eta herrixketako bizitza paisaiarik landatarrenetan egingo du agerpena Vic-ek, alteritateak, Berлиндik bakarrik iritsitako hiritar emakumeak. Bestalde, bizkarrean jaio zaion *numinosum*-ak bultzatuta, Vic-en azalak ukimen gaitasun berria duen aldetik, Vic hiritarrak modu desautomatizatuan hautemango du bideko paisaia. Gainera, erdigunetik periferiarako bidaia gisa uler daitekeen Berлиндik Itsaso Baltikorako bidean Vic-ek bere gorputzaren memoria ere erregistratuko du periferia eta alteritateetik: bizkarreko azal iletsuaren *numinosum*-arekin aurrez aurre egite-rakoan, gorputzari lotutako beste hainbat *numinosum*-en eta alteritateen katalogoa ere egiten du: neskatala izanik bularrak haztean, Karl-en gorputzarekin lehen enkon-trua, Karl bikotekidearen ezkutuan ama izateko saioak, amatasun ezaren alteritatea eta Karl-ekiko harremanean emazte-ohi eta alabatxoaren periferian kokatua egotea, esate baterako. Hasiera batean feminitateari eraso egiten dion *numinosum* iletsua, alteritatea agerian jartzen dion azal eremu beldurgarria, protagonistak bidaiaren amaieran gorputz atal gisa barneratzen du, bikotekidearekiko historia emozionala berrirakurtzen duen bitartean.

Gorputz barnean edo azalean kokatutako *numinosum*-ak bi eleberrietan beldurra eta lilura edo maitasuna hein ezberdinetan sortzen du. Hala ere, azalaren bidezko pertzepzioen bitartez bietan feminitatearen birpentsatzea mahaigaineratzen da, memoria sozial eta kulturalaren baitan dimentsio berriak ere txertatzen dituzte, bi protagonisten birkokapena iraganeko oroitzapenekiko eta besteekiko ahalbidetzen delarik.

2.2. ENTZUMENA, ALTERITATEA ETA MEMORIA FAMILIE DER GEFLÜGELTEN TIGER ETA BELTZURIA-N.

Ixiar Rozas-en *beltzuria* (2014) eta Paula von Fürstenberg-en *Die Familie der geflügelten Tiger* (2016) lanetan hitzari eragiten dien nahasmenduek eta, hortik abiatuta, memoria eta identitatearen eraikuntzan alteritatearen eremuak rol esan-guratsua dute.

Osagarri autobiografikoak dituzten bi lan hauetan hitza galdu duen gizonetzko pertsonaiaren ahotsa erreskatatzeko eta berrinterpretatzeko bidaia egiten du ni-ak, bitartean belaunaldi ezberdinen memoria(k) eta norberaren identitatea(k) eratzen doazelarik. *Familie der geflügelten Tiger* eleberriarren protagonista eta narratzailea 21 urteko Johanna da, 2000. lehen hamarkadan Alemaniako Ekialdeko Uckermark izeneko eremu txiki batetik Ekialdeko Berlinera etorria tranbia gidari izateko prestakuntza jasotzera. Egun batean, mapak eta planoak izugarri maite dituen Johanna gazteak 1989ko urriaren 4ean, Berlingo Harresia desagertu baino hilabetetsu lehenago, desagertu zen Jens aitaren mezua jasotzen du. Astrid amaren arabera, betiko ihes egin zuen Alemaniako Mendebaldera rock musikari ospetsua izatera, Astrid emaztea eta bi urteko alaba Johanna atzean utzita. Johannak ez du ez bere aitaren ezta Alemaniako Errepublika Demokratikoaren oroitzapenik. Orain, 19 urte geroago, Johannak ospitalean minbizia duen aita aurrez aurre izango du, eta aitaren aldeko familia kideak ere ezagutuko ditu, Hilde amona eta Antonia ahizpa. Bere identitatea eta aitari eta Alemaniako Errepublika Demokratikoari (AED) buruz amaren ahotik entzundako egiak erabat zalantzatan jartzen duen protagonista eta narratzaileak aitaren ahotik zuzenean egia jakin nahiko du aitak iraganean hartu zuen erabakiaren eta AEDerekiko jarrearen inguruan. Bere identitatearekiko, AEDeko iraganarekiko eta familiarekiko barneko mapa emozionalean birkokatzeko beharra du Johannak. Alabaina, Jensek bere alabaren galdera zuzenei, ziurrenik morfinak eraginda, erantzun kriptikoak besterik ez dizkio eskaintzen, eta ondoren jada hitz egiteko gaitasuna galtzen du minbizia eta dementziarengatik. Ahotsa eta hizketarako gaitasuna galdu duen aitaren egia ikertzeko prozesuan AEDeko iragana bizi izan duten belaunaldi eta biografia ezberdinen ahotsei erreparatuko die Johannak, Jens-en desagertuaren bertsio ezberdinak ematen dizkietenak: Stasi-k preso hartu zuela, 1989ko urriaren 4ko manifestaldi erraldoiera joan zela, etab. Ahotsak argazki eta dokumentuekin solasean ere jartzen ditu narratzaile eta protagonistak, azken momentuan eta Jens-en heriotzaren ondoren Stasiren akta ikusteko aukera duenean uko egin arte. Ahotsik gabe geratua zen aitaren heriotzaren ondoren, Johannak sormenezko memoria eraikitzen du aitaren esaldi kriptikoan eta aitaren etxean topaturiko 1989ko urriko auto matxura baten ordainketa gordekin bateko informazioan oinarrituta. Galdetzen dion orori erantzuten dio geroztik Johannak Jens-ek auto matxura izan zuela eta Erich Honecker-en fisioterapeuta Erikak errepidean jaso zuela Jens, autoa eta berau Mendebaldeko Berlinera garraiatuak izan zirela, jarraian hiriak irentsi zuelarik, etxera itzultzeko beranduegi izan zen arte.

beltzuria saiakera dokumental izenarekin aurkezten du Ixiar Rozas egileak, bere familiako istorio batzuk zeharkatzen dituen ahotsaren espazio sozial eta politikoaren

inguruko gogoeta. ni-ak amaren ahotik “beltzuria”⁸ hitz polifonikoa entzuten duen momentuan hasten da hildako aitona Xamuioren ahotsaren erreskatatze prozesua. RIF-eko gudutik itzuleran ia hitzik gabe geratutako gizonak bertsotan soilik hartu zuen hitza geroztik, bere ahotsa galdu zen, eta munduak axolagabekeriak entzun ez dituen baserritar soldadu eta familien ahotsen erresonantzia egiteko lana hartzen du ni-ak. Xamuioren ahotsaren bilaketa zentzu fonikoan abian jartzen du. Izan ere, ni-ak halabeharrez jakingo du Xamuiok, 1970 urteko Antonio Zavalaren ikerketa lan baterako, 1917 urtean hila zen Axura bertsolariaren bertsoa buruz abestu zuela, eta ahotsaren grabaketa ere izan bazela. Grabaketari arrastoa jarraituko dio, Etxalar jaioterrian eta Donostian bilaketa eginez eta hainbat ahots ikusgai eta ukigarri eginez: Xamuiok gain, amona Linarena, amarena eta lau belaunaldiko herriko ahots ezberdinenak. Grabaketarik agertu ezean, aitonaren ahotsaren ñabardurak eta bakartasuna erreskatatzen saiatzen da ni-a (B 52)⁹, adin ezberdinetako lau emakumezko gorputzen sukaldeko solasaldiaren alteritatean, Xamuioren memoriaren ahoratze prozesua gorpuzten den arte (B 98). Ahoratze prozesu hau ni-aren erresonantzi ariketa oniriko zehatz batean entzun, ikus eta uki daiteke literatur-lanaren amaieran: Xamuiok 1970ko grabaketan oroitu ezinik geratu zen bi lerroak, idatzizko ikerketa lanean Zavalak puntu etenez osaturiko bi lerroz adierazi zituenak, ni-ak amets bidez atzematen ditu amets eta esnaldi arteko pertzepzio momentu berezian: bi lerro intermitenteen gainean inskripzio bat sortzen du, palimpsestoa osatuz.

Bi literatur-lanetan, beraz, aurreko belaunaldien memoria eraikitze bidea egiten da entzumenaren bidez. Hain zuzen ere, jada hitzik esaten ez duen gizonetzko bati eta bere iraganari buruzko bilaketak ditugu *Familie der geflügelten Tiger* (2016) eta *beltzuria* (2014) lanetan. Desagertutako, jada entzun ezin daitekeen ahotsa da abiapuntua bi kasuetan, eta bi ahotsek Europako iraganeko bi momentu traumatikoren esperientzia izan dute.

Walter Benjaminek adierazi zuen Lehen Mundu Gerraren ondoren gizakien artean esperientziak partekatze gaitasuna urritu zela jendartean (Benjamin 2007: 104) Xamuioren RIF osteko isiltasunak gerraren traumaren, borroka-nekearen nahasmenduaren oihartzun gisa har daiteke:

⁸ Rozasek saiakeraren lehen orrialdean zehazten du izenburuaren esanahi potentzialtasun eta polifonia, hiztegi bateko hitz sarreraren modura lau esanahi zehaztuz: 1) izond. Bekozkoa zimurtu, ilundu; 2) izond. Euria hasi aurreko zeru beltza, zerua eztanda egitear; 3) iz. Sustoa, bihotz-estaldura; 4) generoari lotutako ñabardurak: gerra denboran emakumeek beltzak eta zuriak ikusten zituzten; bi urte inguru irauteen zuen doluaren azken hilabeteetan, emakumeak, tela beltz eta zuriz egindako arropak eramaten hasten ziren; istorio beltzak, garaikoak eta egungoak, bizi ahal izateko memoriak zuritzen dituenak. (B 9)

⁹ *beltzuria* lanari aipuen erreferentzia B eta orrialde zenbakiaren bidez egingo da.

Gerra hartatik itzuli zenean, Xamuiok ez zuen apenas hitz egiten. Lehen Mundu gerratik itzultzen ziren soldaduen antzera, izandako esperientziak mututu egin zuela pentsa daiteke. [...] Izaki isil bilakatu zen Xamui. [...] nire aitona zen. Etxean entzuten nizkion bertsoak, Lasarten, eguberri bezperako afari eta biharamuneko bazkarian. Kantu horietatik eta agurretatik haratago, apenas entzun nion beste hitzik (B 18–19).

Jens-en kasuan minbizi eta dementziari lotutako desgaitasuna da, gerrarik tar-tean izan gabe. Alabaina, 1989ko urriko desagerpenaren arrazoen eta zehaztapenen inguruko informazio eza, Alemaniako historia gaztean izandako bat bateko aldaketa historikoaren eta ondorioz Alemaniako Errepublika Demokratikoaren desagerpenaren ondoren garai, jarrera eta erabaki batzuen inguruko isiltasunaren isla da. Bi kasuetan, iragana espazio huts bihurtu da, ahotsezko artefaktuek —erantzungailu automatikoan Jens-ek Johannari uzten dion mezuak eta *beltzuria*-ko ni-ak kasualitatez ikerketa lan bati lotutako balizko grabaketak— protagonistak bilaketa prozesu batera bultzatzen ditu. Momenturen batean idatzia zen testua isiltasuna medio ezabatua izanaren kontzientzia pizten da bai Johannarengan (FGT 19)¹⁰ eta baita *beltzuria*-ko ni-arengan (B 19, 21, 129) ere.

2.2.1. Ahotsaren gorputzasuna: numinosum eta dialogizitatea

Badirudi ahotsari lotutako bilaketa prozesu honetan bi subjektu hauek, Susan Sontag-en adierazpenaren ildotik, zentzumenak berreskuratu eta gehiago ikusi, entzun eta sentitzen ikasteko ariketa egiten dutela. Izan ere, ahotsaren gorputzasuna kokatzen da bi lanen erdigunean: Johannaren aitaren eta Xamui aitonaren ahotsek hitz eta esanahiaz harago dute garrantzia eta zentzua. Hitz ulerterrezak baino hitz sorta ulergaitzak, definitu gabeko hotsak deskribatzen ditu Johannak aitarekin duen lehen solasaldian: barrea, kontrako eztarrira joatearen hotsa, eztula, arnasestua (FGT 53). Johannak topatu nahi duen egiaren informazio izpi fidagarririk ez dio eskainiko aitaren ahotsak, alabaren galdera zuzenei nahaskor eta botiken eraginpean erantzuten baitie:

Wieso bist du damals in den Westen gegangen? fragte ich.

Jens lachte.

Das war gar nicht nötig, sagte er, der Westen ist zu mir gekommen.

Wohin bist du dann gegangen, am 4. Oktober 1989?

[...] Die haben mich um fünfzigtausend Mark betrogen, sagte er dann. (FGT 56)¹¹

¹⁰ *Familie der geflügelten Tiger* leberriko aipuen ondoren FGT eta orrialdearen zenbakia adieraziko dira.

¹¹ Zergaitik joan zinen Mendebaldera? Galdetu nuen.

Jens-ek barre egin zuen.

Ez zen beharrezkoa izan, esan zuen. Mendebaldea niri etorri zitzaidan.

Aitaren ahotik entzungo dituen bi erantzun bakarrak izango dira, gaixotasunak ezarritako hizketarako ezinak alabaren egia beharrik ez baitu aseko. Aitzitik, aitaren ahoa egiarako bide baino itzaltzen doan gorputzaren metonimia bihurtuko da. Hemeretzi urtez desagertutako ahotsa orain presentziazatik absentsiarako erdibidean dagoen gorputzaren adibiderik argiena izango da: silaba ulergaitzak soilik irtengo dira aitaren ahotik (FGT 81), txistua dario ahotik (FGT 82), lotan aho irekia (FGT 96), eztula (FGT 98), ahoko kiratsa (FGT 98, 102), edota. goragalearen soinua eta likido horia darion ahoa (FGT 127).

beltzuria saiakera den aldetik, subjektuak ahotsaren gorputzasunari buruz eta entzumen eta ukimenari buruzko hausnarketak gorputzu egiten ditu bilaketa prozesuan zehar. Izan ere, lehenik eta behin, bilaketa hori, iraganeko datu bilketa baino, gorputzarekin iritsi daitekeen lekuen bilaketa bezala azaltzen du ni-ak. Gainera, idazte prozesuan gorputz osoak hitz egiten du ni-aren arabera, “gorputza atari ireki batean egonik” (B 214), beraz gorputz osoaren prozesua da idazketa.

Ahotsa “hitzen azala” (B 40) gisa eta “hitz, hots, soinu, dardara, totelak aho-ratzen ditugun bakoitzean azaleratzen” (B 29) dena bezala definitzearekin batera, hitza, ahotsa eta gorputza elkarrengandik bana ezin diren elementutzat hartzen dira. Horrek entzumena eta ukimenaren arteko loturara garamatza, ahotsa ukitu baitaiteke: “Ahotsak gainezka egiten duenean, entzuteaz gain, ukitu egin dezakegu. Entzumenarekin ukitu” (B 41). Azken batean, zentzumen guztiak ukimenaren luzapen gisa ulertzen ditu ni-ak, Pallasmaa-k adierazitakoari jarraituz (2006: 10).

Gorputzasuna erdigunean duen bilaketa prozesuan alteritateari lotutako bi eremu landuko dira bai *beltzuria*-n eta baita *Familie der geflügelten Tiger*-en ere: *numinosum*-a, batetik, eta dialogizitate eta aniztasuna, bestetik.

Ahotsaren bilaketa prozesu horretan lehen pausuan *numinosum*-arekin topo egingo du subjektuak: aldi berean errefuxa eta miresmena sortzen duenarekin, beldurgarri eta liluragarri denarekin.

Johannaren kasuan, talka hau alaba gisa eta ADEko 3. belaunaldiko kide gisa egingo du. 19 urtez desagertutako aitaren ahotsa bai beldurgarri eta bai liluragarri izango da Johannarentzat, errefusa eta haserrea sortuko dio eta presentzia boteretsua izango da. Johannak inpotentziak sortutako haserrea eta txikitasuna aurkitzen ditu bere baitan: izan ere, erantzungailuan utzitako mezu bakar batek Johannaren pentsamentuak erremediorik gabe aitaren irudi lausoaren inguruan abian jarri ditu (FGT 32), alabak bere burua Berlin hiria mehatxu gisa hautematen (FGT 21)

Nora joan zinen 1989ko urriaren 4an?

[...] Berrogeita hamar markoko iruzurra egin zidaten, esan zuen orduan. (Itzul. Garbiñe Iztueta)

eta aita aurrez aurre ez topatzeko ahaleginetan sumatzen du (FGT 28) eta amari horrelako aita hautatu izanaren errua egozten dio (FGT 34).

Lehen momentuan autosufizientziaz erantzun arren (“Ich bin auch ohne Vater ganz passabel geworden” FGT 15), nortasunaren ardatzetako baten absentiarekin aurrez aurre, aitarekiko ezagutza eza edota aitarekiko ezagutza desegokia onartu beharrean egongo da aurrerago. Horrekin batera, Johannaren bizitza osoan izan duen informazio iturri bakarraren egia zalantzan jartzen dutenean familiako beste ahots batzuk, amarekiko harremana kolokan jarriko da mesfidantzari bide emanez eta ondorioz amaren oroimena ere zalantzan jarriz. ADEren memoriaren eratze prozesuan memoria komunikatibo eta sozialeko kontraesanak azaleratu eta oroime-naren egitari begirada kritikoa eskaintzen dio Paula Fürstenberg-ek.

Beraz, familiako eta Alemaniako memorian norberak ikertzeke dagoen eremu gisa ere agertzen da, eta horrek sortzen du *numinosum*-aren lilura: aitaren inguruko ezagutza falta Johannak bere maparik kuttunenarekin alderatzen du, hain zuzen ere XIII. mendean Alemaniako Lüneburg inguruko Ebstorf-eko monasterioan monjeek sortutako mundu maparekin. Jerusalem erdigune zehatzean kokatzen duen Erdi Aroko mundu mapa handien eta aberatsena den honetan, goian ekia erakusten duena eta lurralde ezezagunak, *terra incognita*, fantasiatzko izakiekin marrazten dituena. Jens aita *terra incognita* da Johannaren barne mapa emozionalean. Ebstorf-eko mundu mapan azaltzen den hegodun tigrearen lekua hartu du Jens-ek. ADE garaiko Berlingo planoan Mendebaldeko Berlin espazio hutsa gisa azaltzen zen bezala, Johanna kontziente da aitaren absentiak bere identitatean zuriunea sortarazi egin duela, eta zuriune hori egiarekin inskribatzeko saiakera da Johannarena. ADEko paradigma politiko, sozial eta kulturean Berlingo planoan hiriko mendebaldeko eremu ezezaguna zuriunez eta sobietar inskripzioz betetzen bazen, eta Ebstorfeko mundu mapan fantasiatzko izakiez, Johannak lehenik eta behin aitaren agerpenak, *numinosum* horrek, bere barnean sortzen duten beldur eta lilura onartuko egingo ditu.

beltzuriaren kasuan, ni-ak bere ekintza literarioaren baitan kokatzen du *numinosum*-a. Xamuioren ahotsa bera ere aldi berean hauskor eta indartsu (B 31) gisa deskribatzeaz gain, ahotsaren bilaketa prozesuan ni-ak bere ahots poetiko propioaren kokatze lana ere egiten du eta prozesu horretan anbiguitasun eta aniztasun kontzeptuek jokutzen duten rola dira *numinosum*-arekin lotura sortzen dutenak: ni-aren ahotsak ez du ez ziurtasunik ez erosotasunik eskaintzen (B 34), poetikoki eta performatiboki egiten ari den ahots anitza delako. “Ahotsaren aniztasuna” kontzeptuari lotuta poetikotasunaren eta performatibitatearen arteko harreman dialektikoa azaltzen du ni-ak: poetikotasuna atzerakako eta gorako mugimendua da, eta performatibitatea aldiz aurrekakoa eta horizontala (B 173). Bilaketaren performatibitatean, idaztean irekitzen den desioen gudua ehiza bezalakoa da: “Ehiztaria ere ezian

dabil. Desioa eta ezetza” (B 49). Idaztean ere desioa eta ezetzak bat egiten dute, ni-a idazten ari dela, “desioek osatzen duen gudu zelai errizomatikoan barneratzen naiz, hitzekin ezagutu nahian ezagutu nahi ez dudanarekin borrokatzeko” (B 49).

Alteritatearen bigarren ardatza dialogizitatea eta aniztasunak osatuko dute. *beltzuria*-n ahotsa aniztasunari (B 34) eta erresonantziari (B 147) lotuta ulertzen ditu ni-ak. Xamuiok aitona eta bertsolariaren ahotsa erreskatatzeko prozesuan, Xamuiok aurreko belaunaldiko Axura bertsolariaren bertsoa memorian jaso eta, erresonantziaren bidez, 1970 urtean beste frekuentzia batean itzulitako erritmoan ahoratu zuen, dialogizitatearen baitan. Bi ahotsezko dialogizitatea hainbat ahotsezko polifonia bihurtuko da Xamuiok ahaztutako bi lerroak ni-ak bere bilaketa eta erreskate lana burutzean hainbat ahotsen iturritik edan ondoren gainean idatzi dituenen.

Familie der geflügelten Tiger eleberrian, dialogizitatea oso sarritan Jens-en hitzen eta mapen inguruan azaleratzen da. Alde batetik Johannak Jens-en iraganari buruzko ikerketan familiako informazio iturri ezberdinei galderak egitean memorian jasota geratu diren Jens-en hitzen esanahiaren potentzialtasuna eta aurreko belaunaldietatik jasotako esamoldeen oihartzuna jasotzen du. Bestalde, Jens bera eta bai Mendebalde eta Ekialdeko Alemaniako memoria Johannarentzat zenbait mapetako zuriune edota tigre hegodunen antzekoak dira.

Ahotsaren alteritateak badu *beltzurian* hirugarren dimentsiorik ere, izan ere ni-aren hurbilketaren arabera, ahotsa erlazonala da, entzulearekiko existitzen da: Ahotsa iheskorra da, ahotik ihes egiten du (B 34), ahotsa existitzen da norbaitengana doalako (B 215). Mugimenduaren kontzeptua, ahotsa mugimendua da, mugimenduan sortzen da, iturri batetik entzulearengana.

2.2.2. Memoria

Postmemoria kontzeptua egokitzen da aurrean ditugun egile eta protagonista edota ni-aren belaunaldiaren kokapenera. Oroitzen ez den pertsonarengan ere iraganak eraginik baduela baieztatzen da, ezkutuan bada ere jarraitzen du eta norberaren identitate eta kokapenari buruzko kezka eta galderak sortarazten baititu.

Bi kasuetan *postmemory* delakoaren testuinguruan garatzen da memoria: ADE-ren kasuan 80. hamarkada amaieran jaiotako belaunaldia eta euskal jendartearen 70. hamarkadakoa, Lehen Mundu Gerratearen inguruan izandako beste guduen lekuko izan zen belaunaldiaren memoria osatu nahian.

Marianne Hirsch-en definizioari jarraituz:

Postmemory describes the relationship that the generation after those who witnessed cultural or collective trauma bears to the experiences of those who came before, experiences that they “remember” only by means of the stories, images and behaviors among which they grew up. But these experiences were transmitted to them so deeply and

affectively as to *seem* to constitute memories in their own right. Postmemory's connection to the past is thus not actually mediated by recall but by imaginative investment, projection, and creation. (Hirsch 2012: 5)

Hasiera batean kontzeptuak Holokaustoari lotutako memoria ardatz bazuen ere, aurrerago Hirsch berak testuinguru ezberdinetara zabaldu zuen erabilera: „I explicitly engage in such connective and intersecting analyses that I have come to see as absolutely necessary if we are to move forward in the field [of post-memory]“ (Hirsch 2012: 19). Beraz, bai Johannaren eta baita *beltzuriako* ni-aren bilaketa prozesua, non norbanakoen oroitzapenak eta baita proiektzioa eta sormena (Hirsch 2012: 5) erabakigarriak diren, postmemoriaren eremuan uler ditzakegu.

Gabriele Schwab-en „Multidirectional or connective approach“ delakoa ere emankorra litzateke gure hurbilketarako, hain zuzen ere, haren aburuz oroitzapenak „are always already composites of dynamically interrelated and conflicted histories“ (Schwab 2010: 30). Beraz, norberaren oroitzapenak fenomeno konposatuak lirateke, sortzerakoan jada elkarrekin dinamikoki harremandutako eta gatazkatutako historiak. Postmemoriaren kasuan inon baino indartsuago azaleratzen da konposatu gatazkatsu izaera hori, hasieratik baita oroitu nahi duen subjektua kontziente bes-teen oroitzapenetatik edan behar duela memoria hori eratzeko eta oroitzen duten subjektuek historiak era kontrajarrian oroitzen dituztela. Hori horrela izanik, mota guztietako memoriak badu dialogizitatetik eta *numinosum*-etik.

Dinamikoki harremendutako eta gatazkatutako historiek, eta mota ezberdinetako informazio iturriek osatuko dute bi literatur lan hauetako memoria lana, eta elementu bakoitzaren barne gatazka eta potentzialtasunaz ohartuko dira. Bi literatur-lanetan topatzen da memoriaren materialtasunaren aniztasuna, euskarri oso ezberdinetako informazio eta datuek osatzen baitute bai Johannaren eta bai ni-aren bilaketa prozesua: hitz ulergaitzek, hitz anbiguoek, argazkiek, garaiko lekukoek testigantza kontrajarriek, ikerketa dokumentuek, museoetako erakusketek, mota ezberdinetako artefaktuek (erantzungailu, ahotsa entzuteko makina), mapek, hiztegiek, iturri bibliografikoek.

Esan gabe doa, bi literatur-lanetan deigarria dela isildutako ahotsa gizonezko ahotsa izatea, hutsunearen erdigunean gizonezko ahotsa izatea, ni bilatzailea emakumezkoa den bitartean. Ez da ahaztekoa bai Johanna eta baita ni-aren memoria prozesuan emakumezko ahotsen ekarpenek dutela gainera pisurik handiena, emakumezko ahotsetatik edango dute gehien bi bilatzaileek.

Espazio hutsak berrintepretatzen dira memoria prozesuaren baitan bi kasuetan: Johannak hasieran ezagutza du helburu, memoria komunikatiboaren eta sozialaren bidez batik bat, bilakaera prozesu horretan, haatik, elementu gehiagoren beharra

sortzen da eta oroitzapenen dialogizitate eta potentzialtasunek berrinterpretaziora daramate. Aitaren bat bateko eta ezusteko agerpenak ustez argi zuen barne mapa lausotzen dio Johannari eta bere lekua eta aurrerako bidea topatzeko modua da ama-rengandik jasotako memoria berraztertzea, eta ezezagunak zituen familiako kideen oroitzapenak entzutea, lerro artean ere ondo entzutea, kontraesanak aintzat hartzea, etxeko argazki zaharrak berriz begiratzea eta beste etxeetakoei lehen aldiz begiratzea, ADE garaiko Berlingo planoari adi erreparatzea, Berlingo DDR-Museum-en erakusketan jarritakoei begiratzea. *beltzurian* hasieratik bilaketa ez da ikerketa gisa aurkezten, eta ni-aren identitatearen bilaketa pertsonala baino ekimena etiko gisa uler daiteke¹². Lehen Mundu Gerrako eta RIF-eko esperientziaren inguruko isiltasuna ikusarazten duen ekimen etikoa. Izan ere, inori axola izan ez zaizkion ahots itzaliak erreskatatzeko bilaketa hau, memoria komunikatiboan eta sozialean isildutako kate-begia memoria kulturalerako berreskuratzeke ariketa etikoa da.

Postmemoria gorputzek eta ahotsek sortutako prozesu sozial gisa ere gorpuzten dute *Familie der geflügelten Tiger* eta *beltzuria*-k. Johannak bere bilaketan ADEko historiako belaunaldi ezberdinen ahotsak entzuten ditu, bakoitzaren inkoherezien eta beren memorien arteko diskurtso kontrajarrien protokolaria da eta aldi berean belaunaldi eta biografia ezberdinetako ahots hauek ehuntzen ditu memoriaren erai-kuntza lan horretan. *beltzuria*-ko ni-ak, berriz, bere bilaketaren gailurtzat Etxalargo sukalde batean lau emakumezko gorputzek sortutako eszenifikazio-espazioa eta solasaldiaren alteritatea azpimarratzen ditu. Ez bakarkako bilaketa prozesuan, baizik Assmann-en hitzetan memoria komunikatibo eta sozialean, performatibitate sozial honetan zehar, ahoratzen baitituzte lau gorputzon indarretik eta ahotsetatik Xamuiok asmatutako bertsoetatik aztarna bakarria (B 98). Horrela iristen da ni-a Xamui eta bere bertsoa memoria kulturalerako berreskuratzerara.

3. ONDORIOAK

Aztertu diren lanetan ikusgarritasunaren, entzungarritasunaren eta ukigarritasunaren arteko loturak sortzen dira, alteritateari eta memoriari dagokionez. Gorputz gaixoen zentzumenen lanketa literarioaren bidez, alteritatea anomalia gisa ulertzen duen diskurtsoa deuseztatzen dute Alberdi, Rozas, Wurster eta Fürstenberg-ek, post-modernitatearen haritik. Alteritatea lantzeko adimena baino zentzumenak

¹² Esparzak dioenarekin bat gatoz identitate postmodernoaren gaia oso indartsua dela *beltzuria* lanean. Kasu honetan dimentsio etikoa indartsuagoa iruditzen zaigu, norberaren identitatearen berreraikitzeke beharra baino (Esparza 19–20).

proposatzen dira, besteak beste alteritatearen muinean datzan *numinosum*-a irrazionaltasunari lotua dagoelako.

Numinosum-arekiko harremana lau literatur-lan hauetan gakoa da. *Jenisjoplin*-en, **bestea** norberaren gorputz barnean aurrez aurre izatean, borroka diskurtsorik abiatuta kontenplaziorako bidea egiten da, eta larruazala da bide horretan ingurukoekiko harremanaren adierazle eta eremu fisiko nagusia. *Das Fell* eleberrian, bidaiariak bideko leku berriak jakin-minez eta liluraz begiak zabalik behatzen eta ezagutzen dituen bezala, Vic-ek bidaian bere gorputzean eremu berria aurkitzen du, eta behin eta berriro bizkarreko eremu iletua esploratzen du ukimenaren bitartez, eremu hori bere gorputzaren ataltzat hartu, bereganatu eta berarekiko lotura emozionala ere sortu arte. Fürstenberg-ek familiaren unibertsoan kokatuko du *numinosum*-a, aita desagertuan gorputzua, eta bere ahots intermitentea agertu eta laster betiko isiltzean, bere ahotik irtendako hitzen misterioa, potentzialtasun eta anbiguotasuna, postmemoriaren *numinosum* izaera ere azpimarratzen da.

Periferiari dagokionez, Alberdi-ren lanean egileak irakurlea gorputz gaixoaren subalterno egoera bestelako periferia egoerekin harremanetan hausnartzera gonbidatzen du: euskal identitatearen periferia, hiri eta herrietako periferia geografiko eta soziala, euskal jendartearen periferia. Wurster-ek, aldiz, harreman emozionalen eta hiri-herri dikotomiaren testuinguruan bideratzen du periferiaren hausnarketa. *Familie der geflügelten Tiger*-en periferia kontzeptua Alemaniako memoria kulturaren testuinguruan lantzen da: Ekialdeko eta Mendebaldeko Alemaniaren oroitza-penak aurrez aurre jartzen dira, baita belaunaldi eta biografia ezberdinetako ahotsen oroimen kontrajarriak. Egia eta memoriarekiko jarrera mesfidatia eta halaber ludikoa ere azaleratzen da protagonistaren postmemoria ariketan. Rozas-ek, alemaniar eremuan Wurster eta Fürstenberg-ek landutako bi ikuspegiak euskal memoria kulturatera ekartzen ditu, izan ere euskal landa eremuetako aurreko belaunaldien kultur memoriari eta zehazki esateko guduetan izan zituzten esperientzien memoria aldarrikatzen da. Periferian eta isilik geratu den memoriari ahotsa ematea aldarrikatzen da.

Memoriaren birkokapena ere ikusten dugu lau literatur-lanetan. Gatazka politikoa kultur memoriaren erdigunean egon den jendarteari so, *Jenisjoplin*-ek 80ko hamarkadan droga-mendekotasunak eta HIESak eragindako sufrimenduaren memoria berreskuratzeari ekiten dio, euskal kultur memoriaren osagai hau periferiatik mugituz. Wurster Alemaniako Ekialde-Mendebalde paradigmaren oinarritutako alteritatearen diskurtsoetatik aldentzen da alteritateari lotutako beste esparru espazial batzuk proposatzeko. *Familie der geflügelten Tiger*-en eta *beltzuria*-n postmemoria kontzeptua dago presente. Sormenetik landutako memoria lana, gorputzasunari lotua dago erabat, eta palimpsestoari: Fürstenberg-ek iraganean marraztutako mapen irudia erabiltzen du palimpsestoa irudikatzen, Rozas-ek berriz bertsoa. Bi kasuetan

subjektuak berridazketa lana egiten du eta aurreko belaunaldien ahots isilduak modu berrietan entzuteko prozesuaren ondorioz, memoria komunikatibotik memoria kulturalera eramaten dituzte aurreko belaunaldien legatuak.

BIBLIOGRAFIA

- Alberdi U. 2017. *Jeni-sjoplin*, Susa, Zarautz.
- Aldekoa I. 2006. *Postmodernitatea gurean?*, "EGAN". 1–2, 141–156.
- Arozamena Ayala A. 2020. *Maketo, Auiñamendi Entziklopedia* [on line], <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/maketo/ar-91241/> [29.04.2020].
- Assmann A. 2006. "Soziales und kollektives Gedächtnis" file:///Users/garbineiztueta/Downloads/0FW1JZ.pdf [29.04.2020].
- Assmann J. and J. Czaplika 1995. *Collective Memory and Cultural Identity*, "New German Critique" 65, 125–133.
- Benjamin W. 2007. *Der Erzähler Betrachtungen zum Werk Nikolai Lesskows (1936)*, in: *Erzählen: Schriften zur Theorie der Narration und zur literarischen Prosa*, Suhrkamp, Frankfurt, 103–128.
- Cambi F., ed. 2008. *Gedächtnis und Identität: die deutsche Literatur nach der Vereinigung*, Königshausen und Neumann, Würzburg.
- Derrida J. 1967. *L'écriture de la différence*, Seuil, Paris.
- Eke N.O., ed. 2013. *"Nach der Mauer der Abgrund"? (Wieder-)Annäherungen an die DDR-Literatur*, Rodopi, Amsterdam, New York.
- Erl A. 2014. *Generation in Literary History: Three Constellations of Generationality, Genealogy, and Memory*, "New Literary History", 45: 3, 385–409.
- Esparza I. 2017. *Identitateaaren eraldatzea XXI. Mendeko euskal narratiban: subjektu literario postmodernoa/Transformación de la identidad en la narrativa vasca del siglo XXI: el sujeto literario postmoderno*, Euskal Herriko Uni-bertsitatea/Uni-versidad del País Vasco. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/28424/TESIS_ESPARZA_MARTIN_IRATXE.pdf?sequence=1&isAllowed=y [29.04.2020].
- Foucault M. 1999. *Las palabras y las cosas: una arqueología de las ciencias humanas*, Itzul. Elsa Cecilia Frost, Siglo Veintiuno, México DF.
- Fürstenberg P. 2016. *Die Familie der geflügelten Tiger*, Kiepenheuer&Witsch, Köln.
- Goudin-Steinmann E. & Hähnel-Mesnard, C. 2013. *Ostdeutsche Erinnerungsdiskurse nach 1989: Narrative kultureller Identität*, Frank&Timme, Berlin.
- Gabilondo J. 2008. *Globalizazioak eta kulturareniztasunaren fantasma: Biopolitika eta diferentzien polemikak euskal kultura eta literaturan, Postmodernitatea eta globalizazioa*, ed. G. Etxebarria, J. Gabilondo, Erroteta, Bilbo, 37–67.
- Halbwachs M. 1967. *La mémoire collective*. Les Presses uni-versitaires de France, Paris, http://classiques.uqac.ca/classiques/Halbwachs_maurice/memoire_collective/memoire_collective.html [29.04.2020].

- Hoffman E. 2004. *After Such Knowledge: Memory, History, and the Legacy of the Holocaust*, Public Affairs, New York.
- Köhler A. 2007. *Brückenschläge. DDR-autoren vor und nach der Wiedervereinigung*. Vandenhoeck und Ruprecht, Göttingen.
- Kortazar J. 2007. *Postmodernitatea euskal kontagintzan*, Utriusque Vasconi-ae, Donostia.
- Lefebvre H. 1991. *The production of Space*. Itzul. D. Nicholson Smith, Blackwell Publishing, Oxford.
- Löw M. 2001. *Raumsoziologie*. Suhrkamp, Frankfurt am Main.
- Liotard J.-F. 1986. *La condición postmoderna. Informe sobre el saber*, Itzul. M Antolín Rato, Cátedra, Madril.
- Merleau-Ponty M. 1993. *Fenomenología de la percepción*, Itzul. J. Cabanes, Editorial Planeta-Agostini, Barcelona, https://monoskop.org/images/9/9b/Merleau-Ponty_Maurice_Fenomenologia_de_la_percepcion_1993.pdf [29.04.2020].
- Olaziregi M.J. 2009. *Is There a Return of the Real in Postmodern Fiction, Basque/European Perspectives on Cultural and Media Studies*, ed. M.P. Rodríguez, Center for Basque Studies-University of Nevada, Reno, 53–80.
- Otto R. 1931. *The Idea of the Holy: an Inquiry into the Non-Rational Factor in the Idea of Divine and its Relation to the Rational*, Itzul. J.W. Harvey, Oxford University Press, London. https://archive.org/stream/theideaoftheholyy00ottouoft/theideaoftheholyy00ottouoft_djvu.txt [29.04.2020].
- Pallasmaa J. 2006. *Los ojos de la piel. La arquitectura y los sentidos*, itzul. M. Puente Rodríguez, Editorial Joaquín Gili, Barcelona.
- Rozas I. 2014. *beltzuria*, Pamiela, Arre.
- Schwab G. 2010. *Haunting Legacies: Violent Histories and Transgenerational Trauma*. Columbia University Press, New York.
- Sistig S. 2003. *Wandel der Ich-Identität in der Postmoderne?: Zeit und Erzählen in Wolfgang Hilbig's "Ich" und Peter Kurzecks Keiner stirbt*, Königshausen & Neumann, Würzburg.
- Sontag S. 2002. *Illness as Metaphor and AIDS and Its Metaphors (1978)*. Penguin, London.
- Sontag S. 2013. *Against interpretation (1964) and other essays*. Penguin, New York
- Toro F. de (1991). *Postmodernidad y Latinoamérica (con un modelo para la narrativa postmoderna)*, "Revista Iberoamericana", 155–156, 441–467.
- Tuan Y-F. 2001. *Space and Place*, University of Minnesota Press, Minnesota.
- Woolf V. 1926. *On being ill. The New Criterion*, 1926, 4:1, 32–45. <https://thenewcriterion1926.files.wordpress.com/2014/12/criterion-eliot-woolf-jan-1926.pdf> [29.04.2020].
- Wurster M. 2017. *Das Fell*, Hanser, Berlin.
- Zavala A. 1970. *Bidasoa aldeko bost bertsolari*, Auspoa, Tolosa.